

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Getxoko Udala

Ayuntamiento de Getxo

2019





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	10
II.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	10
II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA.....	11
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	12
III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA.....	12
III.2 LANGILERIA.....	12
III.3 KONTRATAZIOA.....	12
III.4 DIRULAGUNTZAK.....	13
III.5 BESTE ALDERDI BATZUK.....	14
IV. FINANTZAREN ANALISIA.....	15
V. URTEKO KONTUAK.....	18
V.1 UDALA.....	18
V.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK.....	21
V.3 PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO SA SOZIETATEA.....	23
ERANSKINAK.....	25
A.1 Erakunde fiskalizatuaren izaera eta araudi aplikagarria.....	25
A.2 Aurrekontua eta aurrekontuko aldaketak.....	26
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak.....	27
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak.....	27
A.5 Langileen gastuak.....	28
A.6 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa.....	30
A.7 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	31
A.8 Ibilgetua.....	32
A.9 Pasibo finantzarioak.....	33
A.10 Aurrekontuko zordunak.....	33
A.11 Aurrekontuz kanpoko eragiketak eta horniduren bidezko eragiketa pasiboak.....	34
A.12 Finantzaketa atxikia duten gastuetarako diruzaintza-geldikina.....	35
A.13 Konpromiso-kredituak.....	36
A.14 Kontratazioa.....	37
A.15 Puerto Deportivo El Abra-Getxo SA Sozietatea.....	39
A.16 Kontu bateratuak.....	40



ALEGAZIOAK	41
ABREVIATURAS	43
I. INTRODUCCIÓN.....	45
II. OPINIÓN.....	47
II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD	47
II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES	48
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	49
III.1 PRESUPUESTO Y CONTABILIDAD	49
III.2 PERSONAL	49
III.3 CONTRATACIÓN	49
III.4 SUBVENCIONES	51
III.5 OTROS ASPECTOS	51
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	52
V. CUENTAS ANUALES.....	55
V.1 AYUNTAMIENTO	55
V.2 ORGANISMOS AUTÓNOMOS	58
V.3 SOCIEDAD PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, SA	60
ANEXOS	61
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y normativa aplicable	61
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias	62
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	63
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	63
A.5 Gastos de personal	64
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios	66
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas	67
A.8 Inmovilizado	68



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.10	Deudores presupuestarios.....	69
A.11	Operaciones extrapresupuestarias y Pasivos por provisiones.....	70
A.12	Remanente de tesorería para gastos con financiación afectada.....	71
A.13	Créditos de compromiso.....	72
A.14	Contratación	73
A.15	Sociedad Puerto Deportivo El Abra-Getxo, SA.....	75
A.16	Cuentas Consolidadas	76
ALEGACIONES		77

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 29a.
Vitoria-Gasteiz, 29 de abril de 2021





Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

10/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki-erakundeen aurrekontuei buruzkoa.
15/2010 Legea	15/2010 Legea, uztailaren 5ekoa, abenduaren 29ko 30/2004 Legea aldarazten duena, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena.
AG	Auzitegi Gorena.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
BPG	Barne Produktu Gordina.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
EHJAN	Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorena.
EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea.
EIN	Estatistikako Institutu Nazionala.
EIOZ	Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga.
EPE	Enplegu Publikoaren Eskaintza.
FAGDG	Finantzaketa atxikia duten gastuetarako diruzaintza-geldikina.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikina.
HILBIZ	Hiri izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
JU	Jardun Unitatea.
LOP	Lurraren Ondare Publikoa.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
MLBN	Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
PI	Prozedura irekia.
PIH	Prozedura Ireki Harmonizatua.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Getxoko Udalaren 2019ko Kontu Orokorraren fiskalizazio-lana mamitu du.

HKEEk gauzatutako aurreko fiskalizazio lana 2011ko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

2019ko ekitaldiko aurrekontuak Alkatetzaren Dekretu bidez luzatu zituzten 2019ko urtarrilaren 23an. Udalbatzak onartutako azken Aurrekontu Orokorrak 2016koak izan ziren.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kalte gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
 - Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak Udalaren, bere erakunde autonomoen eta sozietate publikoaren –zeinetan udala kapital sozialaren % 50etik gorako ehunekoaren jabe baita- balantzea, ekonomia eta ondarearen emaitza-kontua eta memoria besarkatzen ditu, baita Udalaren eta bere erakunde autonomoen aurrekontuen likidazioa ere.
- Sozietate publikoaren kontuei dagokienez, gure lana kanpoko enpresek gauzatutako auditoretzako txostenak aztertzea izan da eta horretarako, beharrezko iritzitako proba osagarriak edo auditoretzako beste zenbait prozedura gauzatu ditugu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Alabaina, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak Txosten honen III. Idazpuruan aztertu ditugu.
 - Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Getxoko udalerrak 2019ko urtarrilaren 1ean 77.946 biztanle zituen Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera. Udalak bere egituran honako erakunde hauek barne hartzen ditu:

- Getxoko Kultur Etxea Erakunde Autonomoa: kultur jardueren sustapena eta udal Euskaltegiaren kudeaketa.
- Andrés Isasi Musika Eskola Erakunde Autonomoa: musika-jardueraren ezagutza eta irakaskuntza.
- Getxo Kirolak Erakunde Autonomoa: kirola egitea eta lehiaketa sustatu eta indartzea.
- Jesusen Bihotzaren Udal Egoitza Erakunde Autonomoa: adinekoen egoitza-arreta.
- Puerto Deportivo El Abra-Getxo SA (% 66,75): kirol-portuen plangintza, sustapena, garapena eta ustiapena.

Gainera, Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoko eta Bizkaiko Garraio Partzuergoko kide da.

2019ko ekitaldian Juan Bautista Zabala Fundazio Publikoa azkendu eta likidatu da.



II. IRITZIA

II.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

AURREKONTUA (ikus A.2)

1. 2019ko ekitaldiko Aurrekontuen Proiektua ez zitzaion Udalbatzari aurkeztu onartu, zuzendu edo itzultzeko eta horrek 10/2003 FAREN artikulua urratzen du.

KONTRATAZIOA (IKUS A.14)

2. "La Terraza" udal-eraikina ustiatzeko zerbitzuen emakida-kontratua Udalbatzak 2018ko irailean esleitu zuen 10 urtetarako eta 5 urteko luzapenarekin, 2 milioi euroren zenbatekoan; kontratu hori, baina, ez da EBAOn argitaratu, kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatu baita esleipendunak ordaindu beharreko kanonaren arabera, bideragarritasun-azterketan kalkulaturako negozio-zifraren zenbateko garbiaren ordez (24 milioi euro) (SPKLren 20. eta 101. artikulua).
3. Getxo Antzokiaren ekipamendu eszenikoko kontratua aldatu egin da 2018ko azaroan, organo eskudunak nahitaezkoa den onespena eman gabe, pleguetan aurreikusi ez diren eta kontratu-aldaketan klausuletan jaso ez diren elementuak barne hartuta, guztira 219.296 euroren zenbatekoan; horrek kontratuaren xedea aldatzen du eta administrazio-kontratazioa arautzen duten printzipioak urratzen.
4. Udalak eta Getxo Kirolak-ek 194.129 euroren gastua egin dute 2019ko ekitaldian, kontratuak amaituta zituzten 3 zerbitzuri dagokiena.
5. Udalak, aplikazio informatikoak mantentzeko zerbitzuaren kontratua 2018ko azaroan mugaeguneratu ondoren, 2019ko ekitaldian 77.167 euroren gastua egin zuen kontratuaren helburua 5 kontratu txikitan zatituz, eta prozedura ireki berria izapidetzen hasi zen 2019ko urrian.
6. Getxoko Kultura Gelak, Muxikebarri arte, kultura eta kongresuen zentroa ireki ondoren, 2019ko ekitaldian zehar, hainbat jarduera gauzatzeko argiztapen- eta soinu-ekipoak alokairu-erregimenean muntatu, desmuntatu eta hornitzea 4 kontratu txikiren bidez esleitu zuen, 65.490 euroren gastua eginez eta ez ziren bete kontratazio administratiboa arautzen duten publizitate- eta lehia-printzipioak.

Epaitegi honen iritzira, Getxoko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek, 1etik 6ra bitarteko paragrafoetan aipaturako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2019ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Udalaren Egoera Balantzeko Ibilgetu ez finantzarioaren zenbatekoek 2019ko abenduaren 31n ez dute data horretan inbentarioan jasotako ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen (ikus A.8).

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan adierazitako salbuespena alde batera, Getxoko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeen kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2019ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2019ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- Udalaren 2019ko ekitaldiko aurrekontu-emaizta doitua, 18,1 milioi euroena, 4,8 milioi euro gutxitu behar da, izan ere, aipatutako magnitudera oker doitu dira FAGDGrekin finantzatutako obligazioak.
- 2017az geroztik atzerapenak izan dira erroldaren araberakoak ez diren zerga-sarrereren likidazioetan. Zehazki, 2020ko irailean likidatzeko daude HILBIZaren 2017-2019 aldiko egitate zergagarrien % 55,8 eta EIOZaren 486 espediente guztira.
- 2019ko abenduaren 31n zerga-zorren kontzeptuan aurrekontuan kobratzeko dagoen zenbatekoa handiagoa da hirugarrenen xehapenetik eskuratzen dena baino eta azpimarratzekoak dira fiskalizatutakoaz lehenagoko ekitaldietatik datozen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dauden aldeak. Gomendagarria litzateke alde horien jatorria identifikatu eta aldi behin horiek bateratzea.

III.2 LANGILERIA

Getxoko Kultur Etxean eta Jesusen Bihotzaren Udal Egoitza erakunde autonomoetan behin-behinekotasun tasa, hurrenez hurren, % 47 eta % 67 da (27 eta 41 plaza); txosten hau idatzi dugun datan, baina, onartu gabe daude bakoitzaren Enplegu Publikoko Eskaintzak.

III.3 KONTRATAZIOA (IKUS A.14)

Udalaren eta erakunde autonomoen kontratazio administratiboa aztertu dugu eta honako alderdi hauek bereizi ditugu:

- Udalak esleitutako kontratuen pleguetan, prezio irizpidea kalkulatzeko baliatzen den formulak (izaera orokorrarekin 2013ko Alkatetzak onartutakoak) puntuak ematen dizkie lizitazio-prezioa berdintzen duten eskaintzei eta horrek murriztu egiten du irizpide ekonomikoaren garrantzia.
- Udalak administrazioko kontratu berezi modura kalifikatu zuen bide-garbiketa eta hondakin-bilketako kontratua, 2014an 80,8 milioi euroan esleitu zena 8 urtetarako, beste 4 urtez luzatzeko aukerarekin. Arrisku-osagairik ez dagoenez, zerbitzu-kontratutzat hartu behar da, eta lizitazioaren unean gehienez ere 6 urteko indarraldia izango du (9. espedienteak).
- Udalak 2 milioi euroan esleitutako "La Terraza" udal-eraikinaren ustiapen-zerbitzuen emakida-kontratuan, pleguek langileak subrogatzeko betebeharra ezartzen dute, eta ez



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

dago jaso aplikagarri den hitzarmenean. Betekizun hau enpresa eta langile arteko sektoreko hitzarmenetatik soilik erator daiteke (18. espediente).

- Udalak eta Getxo Kirolak-ek 13,7 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 7 kontratutan honako akats hauek azaleratu dira pleguetan barne hartutako esleipen-irizpideetan:
 - Getxo Antzokiaren mantentze integraleko zerbitzuaren kontratuan, Udalak 1,1 milioi euroan esleitutakoan, esleipen-irizpide modura eraginkortasun energetikoaren ISO ziurtagiria edukitzea jasotzen da. Ziurtagiri hauek izatea, enpresaren ezaugarri den aldetik eta kontratuaren xedeari zuzenean lotzen ez zaion aldetik, kaudimen-irizpidea dela uste dugu eta ez daiteke esleipen irizpide modura balia (14. espediente).
 - Udalak eta Getxo Kirolak-ek 11,5 milioi euroan esleitutako 5 kontratutan, inbertsio gehigarriak egiteagatik hobekuntza-irizpideari esleitutako puntuak neurritz kanpokoak dira eskaintza ekonomikoaren irizpideari esleitutakoekin alderatuta (4, 5, 10, 16 eta 23 espedienteak).
 - Udalak 4,5 milioi euroan esleitutako etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren kontratuaren pleguetan, proposamen ekonomikoarekin batera justifikazio-azterketa ekonomiko bat aurkezteko betebeharra jasotzen da, zerbitzu teknikoek proposamen teknikoaren eta ekonomikoaren arteko koherentzia baloratu ahal izan dezaten; halaber, proposamena baztertzeko arrazoia izan daiteke. Neurritz kanpoko merketzeak dituzten eskaintzen balioespena berariaz jaso behar da pleguetan, parametro objektiboen arabera, eta nahitaez lizitatzaileari entzungo zaio, bere eskaintzaren baldintzak justifika ditzan (11. espediente).
 - Udalak 7 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 2 kontratutan, pleguek eskaintzei 3 hilabetez eutsiko zaiela agintzen duten arren, esleipena egin da epe hori 5 eta 3 hilabetetan gaindituta (7 eta 12 espedienteak).
 - Kultur Etxeak eta Jesusen Bihotza Udal Egoitzak 725.645 euroan esleitutako 3 kontratutan ez dira sartu esleipen-ebazpenetan enpresa esleipendunek kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikagarritzat jo dizkieten hitzarmen kolektiboak (19, 20 eta 25 espedienteak).
 - Udalak 1,7 milioi euroan esleitutako kontratu baten obrak 14 asteko atzerapenarekin jaso dira aurreikusitako epearen aldean, kontratazio-organoak epea luzatzea onartu gabe (1. espediente).

III.4 DIRULAGUNTZAK

- Enplegua sortzeko Udalak emandako 252.573 euroren dirulaguntzak eskabideak iritsi ahalako hurrenkeran oinarritutako prozedura baten bidez izapidetu dira, eta 15 eguneko epean agortu dira. Gomendagarria litzateke beste emakida-sistema bat aplikatzea, diruz lagundutako jarduerarekin lotutako irizpideak barne hartuko dituen eta dagokion dokumentazioa azkar aurkeztea soilik sarituko ez duena.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Udalak lankidetzaren humanitarioko proiektuetarako eta dinamizazio ekonomikorako emandako 549.113 euroren dirulaguntzak ebazteko epea 2 eta 5 hilabete artean luzeagoa izan da oinarri arautzaileetan ezarritakoa baino.
- Getxoko Kultur Etxeak kultur elkarteei beren ohiko jarduerarako emandako dirulaguntzetan (130.000 euro), hasierako banaketaren ondoren banatzeke dagoen % 22,5 oinarri arautzaileetan ezarritakoaz bestelako formula batekin banatu da.
- Getxo Kirolak-ek kirol federatua finantzatzeko emandako 596.999 euroren dirulaguntzetan, onuradunei ez zaie eskatzen diruz lagundutako jardueran sortutako gastuen % 100 justifikatzeko, deialdiaren oinarrietan agintzen den bezala.
- Getxo Kirolak-ek 140.000 euroan ekipamendu eta ontzi nautikoak erosteko emandako dirulaguntzetan, ez da eskatu gutxienez 3 hornitzailearen eskaintzak aurkezteko, baldin eta diruz lagun daitekeen gastuak DLoren 31.3 artikuluan ezarritako zenbatekoak gainditzen baditu.

III.5 BESTE ALDERDI BATZUK

- 2019ko ekitaldian merkataritza-eragiketarako ordaintzeko legezko epeak betetzeari buruzko 15/2010 Legean aurreikusitako Diruzaintzako hiru hilean behingo txostenetan, agerian jarri da Getxoko Udalak 13,4 milioi euroren fakturak ordaindu dituela, eta faktura horiek onartzeko 30 egunetik gorako epea igaro dela; halaber, 2,1 milioi euroren ordainketak egin direla, onartu zirenetik 30 egunetik gorako epea igaro ondoren.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldian likidatutako magnitude nagusien bilakaera honako taula honetan dago zehaztua.

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2017(*)	2018(*)	2019	2017	2018	2019
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	34.775	39.146	40.028	444	500	514
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.)	50.173	54.474	54.126	640	696	694
Ondare sarrerak (5. kap.)	314	310	305	4	4	4
A. Sarrera arruntak	85.262	93.930	94.459	1.088	1.200	1.212
Langile-gastuak (1. kap.).....	24.211	24.570	25.285	309	314	324
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.)	31.832	32.707	34.723	406	418	445
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.)	17.480	17.915	18.977	223	229	243
B. Funtzionamendu gastuak.....	73.523	75.192	78.985	938	961	1.012
Aurrezki gordina (A-B).....	11.739	18.738	15.474	150	239	200
Finantza gastuak (3. kap.)	(4)	(2)	(2)	-	-	-
Emaitza arrunta.....	11.735	18.736	15.472	150	239	200
Maileguen amortizazioa (9. kap.)	(3.062)	(4.502)	(4.120)	(39)	(58)	(54)
Aurrezki garbia	8.673	14.234	11.352	111	181	146
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	(136)	4.601	252	(2)	59	3
Jasotako kapital dirulaguntzak (7. kap.)	137	1.023	1.024	2	13	13
Inbertsio errealak (6. kap.).....	(10.415)	(17.748)	(16.294)	(133)	(227)	(209)
Emandako kapital dirulaguntzak (7. kap.)	(891)	(2.650)	(1.173)	(11)	(34)	(15)
Kapitalezko eragiketen emaitza	(11.305)	(14.774)	(16.191)	(144)	(189)	(208)
Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.).....	430	3.962	(719)	6	50	(8)
Diruzaintza-geldikina	43.405	40.787	35.554	554	521	456
Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikina	34.563	31.150	29.069	441	398	373
Zorpetzea.....	15.407	10.905	6.785	197	139	87

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: 2019ko ekitaldian kitatutako sarrera arruntak % 0,6 hazi dira 2018ko ekitaldiaren aldean eta % 10,8, berriz, 2017koaren aldean.

- **Zergak, tasak eta bestelako sarrerak** 2017ko ekitaldiaren aldean izan duen igoera, nagusiki, informatikako eta zerga-kudeaketako lanabes berri bat ezarri izanari zor zaio; programa hori abian jartzeak atzerapenak eragin ditu HILBIZ eta EIOZen likidazioak sortu eta erregistratzean. 2019ko ekitaldian, tipo zergagarriek, tasak eta prezio publikoek ez dute inongo aldaketarik izan aurreko ekitaldiaren aldean.
- **Transferentziak eta dirulaguntza arruntak:** Udalkutxako diru-sarrerak dira aurrekontuko kapitulu honetan esanguratsuenak. Ez da aldaketarik izan 2018ko ekitaldiarekiko. 2019ko ekitaldian kontabilizatutako diru-sarrerak Bizkaiko Foru Aldunditik jasotako konturako ekarpenei dagozkie soilik; izan ere, Udalaren aldeko behin



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

betiko likidazioaren ordainketa, 1,5 milioi euroena, 2021eko ekitaldira atzeratu da (ikus A.4).

Funtzionamendu-gastuak: 2019ko ekitaldian obligazio aitortuak % 5 igo dira 2018ko ekitaldiaren aldean eta % 7,4, 2017koaren aldean. Hona hemen bariazio adierazgarrienak:

- **Langile-gastuak:** Aurrekontuko kapitulu honek % 2,9 egin du gora 2019ko ekitaldian, batik bat ekitaldi horretarako onartutako soldata-igoeren ondorioz (ikus A.5).
- **Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa:** % 6,2ko igoera izan da 2018ko ekitaldiarekiko. Besteak beste, aipatzekoak dira 2019ko martxoan inauguratu zen Muxikebarri arte, kultura eta biltzar zentroaren mantentze-lanen eta garbitze-lanen gastuak, 760.000 euro inguru, eta 360.000 euro araututako aparkatzeko kontratuan.
- **Transferentziak eta dirulaguntza arruntak:** % 5,9 igo dira udal erakunde autonomoei egindako transferentzien ondorioz, nagusiki Getxo Kirolaki.

Aurrezki gordina eta garbia: 2019ko ekitaldian diru-sarrera arrunten igoera funtzionamendu gastuena baino txikiagoa izan da eta horrek aurrezki gordina eta garbia aurreko ekitaldiaren aldean 3 milioi euro inguru murriztea ekarri du. 2019ko aurrezki garbia sarrera arrunten % 12 da.

Kapital-eragiketen emaitza: 2019ko ekitaldiko kapital-eragiketen emaitzaren saldoa negatiboa da 16,2 milioi eurotan, eta beste administrazio publiko batzuen dirulaguntzekiko mendekotasun-indizea % 5,9 da. Gauzatutako kapital-inbertsioak Udalbatzak 2018ko eta 2019ko ekitaldietan onartutako kreditu gehigarriak onartetik datoz; kreditu horiek, funtsean, aurreko ekitaldiko diruzaintzako geldikinarekin finantzatu ziren.

Zorpetzea: Udalak, 2019ko eta 2018ko ekitaldietan, hurrenez hurren, 1,8 eta 1,4 milioi euroren amortizazio aurreratuak egin ditu, eta 2 mailegu ezeztatu ditu finantza-erakundeekin, 2019tik aurrerako ekitaldietarako mugaeguneratzea aurreikusita zeudenak. Horri esker, zorpetze-maila % 56 murriztu da 2017ko ekitaldiarekin alderatuta.

Diruzaintza-geldikina: 2019ko ekitaldia 35,6 milioi euroren diruzaintza-geldikinarekin likidatu da eta hortik % 44 erabili da 2020ko ekitaldian kredituak txertatzeko. Ekitaldi bakoitzaren amaieran zorpetzea murriztuta, diruzaintza-geldikinak konstante eutsi dio aztertutako aldian.

Ondorioa: Udalak zorra murriztu du, 2017ko ekitaldian likidatutako diru-sarrera arrunten % 18,1etik 2019ko ekitaldian % 7,2 izatera aldatuz. GODGri dagokionez, 2020ko ekitaldiko kreditu-gehikuntzak finantzatu ondoren, 15,3 milioi euroren saldo erabilgarria du.

COVID-19ak 2020an eragindako osasun-larrialdiko egoerak eragin negatiboa izan du haren finantzaketa-iturri nagusian, Udalkutxan (diru-sarrera arrunten % 52,7 egin du 2019ko



ekitaldian); izan ere, 2020ko ekitaldiko konturako entregak % 6,8 txikiagoak dira 2019koak baino (3,4 milioi euro). Gastuei dagokienez, nabarmentzekoa da "transferentzia arruntak" atalak izan duen 3,6 milioi euroren igoera hirugarren hiruhilekoaren amaieran, familientzako nahiz udalerriko jarduera ekonomikoetarako eman diren aparteko laguntzengatik, bai eta Getxo Kirolak-i egindako transferentziak ere, COVID delakoaren ondorioak arintzeko.

Aurrekontuaren egonkortasuna: Udalaren Kontu-hartzaitzak txostena jaulki zuen Udalak, erakunde autonomoek eta sozietate publikoak 2019ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio bateratuan aurrekontuaren egonkortasun, gastuaren arau, eta zorraren muga bete dutela egiaztatuz, eta bertan esaten da:

- Aurrekontuaren egonkortasunari buruzko helburua bete da, behin GODG bidez finantzatutako gastuak doitu ondoren eragiketa ez finantzarioen superabita eskuratu baita.
- Gastuaren araua bete da, izan ere 2018ko ekitaldiaren aldean zenbakarria den gastuaren bariazioak ez zuen Espainiako ekonomiaren epe ertaineko BPGaren erreferentziazko hazkuntza tasa gainditu (% 2,7).
- Zorraren printzipioa bete da, 2019ko abenduaren 31n zor bizia % 6,4koa izan baita sarrera ez finantzarioen gainean, % 60ko mugaz beheiti.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2019KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE		KOB.R.		%
		HASIER.	ALDAK.	B. BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	EXEK.	
1. Zerga zuzenak	A.3	22.364	-	22.364	23.003	21.609	1.394	103	
2. Zeharkako zergak	A.3	1.511	-	1.511	2.331	1.330	1.001	154	
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	14.107	59	14.166	14.694	11.067	3.627	104	
4. Transferentzia arruntak	A.4	52.770	690	53.460	54.126	53.132	994	101	
5. Ondare-sarrerak.....		596	-	596	305	228	77	51	
6. Inbertsio errealen besterentzea		-	127	127	252	221	31	199	
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.4	196	409	605	1.024	990	34	169	
8. Aktibo finantzarioak		150	32.914	33.064	61	61	-	(*) 40	
GUZTIRA		91.694	34.199	125.893	95.796	88.638	7.158	(*) 103	

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza-geldikin bidez finantzatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.		ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B. BETIK.	AITORT.ORDAINK.	GABE	EXEK.		
1. Langileen gastuak	A.5	26.646	719	27.365	25.285	24.609	676	92	
2. Ondasun arrunten eta zerbitz. Kontr. ...	A.6	39.115	1.426	40.541	34.723	26.616	8.107	86	
3. Gastu finantzarioak.....		123	-	123	2	1	1	1	
4. Transferentzia arruntak	A.7	18.276	3.071	21.347	18.977	18.512	465	89	
6. Inbertsio errealak	A.8	4.322	26.422	30.744	16.294	12.742	3.552	53	
7. Kapitalezko transferentziak	A.7	-	1.501	1.501	1.173	567	606	78	
8. Aktibo finantzarioak		150	-	150	77	77	-	52	
9. Pasibo finantzarioak.....	A.9	3.062	1.060	4.122	4.120	4.120	-	100	
GUZTIRA		91.694	34.199	125.893	100.651	87.244	13.407	80	
SARRERAK - GASTUAK					(4.855)				

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	KOBR./	AZKEN	ZORRA
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	
Zordunak.....	A.10	25.674	(255)	14.065	11.354
Hartzekodunak.....		13.158	-	13.104	54
GUZTIRA			(255)		



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA		Euroak milakotan
Eskubide kitatuak		95.796
Obligazio aitortuak		(100.651)
Eskubideen balio gabetzea aurrekontu itxietan		(255)
Obligazioen balio gabetzea aurrekontu itxietan		-
AURREKONTUAREN EMAITZA		(5.110)
Diruzaintza-geldikinarekin finantzaturako oblig.		19.624
Finantzaketako desbideratzeak		3.592
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA		18.106

DIRUZAINZA-GELDIKINA		Euroak milakotan
Diruzaintza		44.946
Aurrekontuko zordunak		18.512
Aurrekontuz kanpoko zordunak (ikus A.11)		2.148
Aplikatzeke dauden kobrantzak (ikus A.11)		(1.590)
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak (ikus A.10)		(11.823)
Aurrekontuko hartzekodunak		(13.461)
Aurrekontuz kanpoko zordunak (ikus A.11)		(3.178)
DIRUZAINZA-GELDIKINA 19.12.31-N		35.554
FINANTZAKETA ATXIKIA DUTEN GASTUETARAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA (ikus A.12)		6.485
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA		29.069

		Euroak milakotan
ZORPETZEA 19.12.31N (ikus A.9)		6.785

		Euroak milakotan		
		2020	2021	GUZTIRA
KONPROMISO KREDITUAK (ikus A.13)		1.500	300	1.800



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2019 ETA 2018KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	ERANSKINA		ERANSKINA		ERANSKINA	
	19.12.31	18.12.31	19.12.31	18.12.31	19.12.31	18.12.31
AKTIBO EZ ARRUNTA	164.715	152.779	ONDARE GARBIA	188.481	179.269	
Ibilgetu ukiezina..... A.8	1.702	1.006	Ondarea.....	78.684	78.684	
Ibilgetu materiala..... A.8	150.340	139.193	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	99.354	83.560	
Lurraren ondare publikoa..... A.8	3.524	3.544	Ekitaldiko emaitza.....	8.659	16.049	
Finantza inbertsioak e/luz..... A.8	9.149	9.036	Jasotako dirulag., aplikatzeke.....	1.784	976	
			PASIBO EZ-ARRUNTA	8.536	11.763	
			Epe luz. zuzkidurak..... A.11	3.500	3.200	
			Kreditu entitateekiko zorrak e/motz. A.9	5.036	8.563	
AKTIBO ARRUNTA	53.857	59.754	PASIBO ARRUNTA	21.555	21.501	
Zordunak eta kobratz knt e/motz.	8.409	12.010	Kreditu entitateekiko zorrak e/motz. A.9	1.749	2.342	
Finantza inbertsioak e/motz.	502	8.663	E/lab. beste zor batzuk.....	4.875	5.869	
Eskud. eta bst. akt. lik. baliok.....	44.946	39.081	Hartzek. eta e/lab. ordaint. knt.....	14.931	13.290	
AKTIBOA	218.572	212.533	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	218.572	212.533	

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA 2019 ETA 2018

Euroak milakotan

	2019	2018
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak.....	38.080	37.806
Jasotako transf. eta dirulaguntzak.....	54.342	54.744
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa.....	88	74
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	1.588	1.983
Gehiegizko hornidurak.....	3.200	3.200
Langileen gastuak.....	(26.767)	(24.730)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	(20.149)	(20.564)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	(34.556)	(32.407)
Ibilgetua amortizatzea.....	(4.472)	(3.266)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	11.354	16.840
Ibilgetua besterentzeagatiko emaitzak.....	-	3.646
Beste kontu-sail ez arrunt batzuk.....	(3.100)	(3.114)
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	8.254	17.372
Sarrera finantzarioak.....	537	297
Gastu finantzarioak.....	(2)	(2)
Finantza aktibo eta pasiboen balio-narriadura.....	(130)	(1.618)
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK	405	(1.323)
EKITALDIKO EMAITZA	8.659	16.049



V.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK

2019KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	KULTUR ETXEA	MUSIKA ESKOLA	GETXO KIROLAK	EGOITZA
2. Tasak eta bestelako sarrerak		543	533	3.358	2.844
4. Transferentzia arruntak		6.431	2.078	5.627	2.295
5. Ondare-sarrerak.....		-	-	26	3
7. Kapitalezko transferentziak		96	30	1.043	38
8. Aktibo finantzarioak		8	6	-	4
ESKUBIDE KITATUAK GUZTIRA		7.078	2.647	10.054	5.184
1. Langileen gastuak	A.5	3.343	2.256	1.993	4.040
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa.....		3.104	319	5.539	1.105
4. Transferentzia arruntak	A.7	532	40	1.374	-
6. Inbertsio errealak		66	30	932	133
7. Kapitalezko transferentziak	A.7	30	-	140	-
8. Aktibo finantzarioak		-	2	1	5
OBLIGAZIO AITORTUAK GUZTIRA		7.075	2.647	9.979	5.283
EKITALDIAREN EMAITZA		3	-	75	(99)
EKITALDI ITXIEN EMAITZA		-	-	-	(40)
Diruzaintza-geldikinarekin finantzatutako oblig.....		-	-	-	146
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA		3	-	75	7

DIRUZAINZA-GELDIKINA

Euroak milakotan

	KULTUR ETXEA	MUSIKA ESKOLA	GETXO KIROLAK	EGOITZA
Diruzaintza	1.612	330	940	796
Aurrekontuko zordunak.....	152	32	608	1.004
Aurrekontuz kanpoko zordunak	1	-	3	3
Aplikatzeko dauden kobrantzak.....	-	-	-	(6)
Aurrekontuko hartzekodunak	(849)	(69)	(1.217)	(319)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	(913)	(293)	(259)	(289)
DIRUZAINZA-GELDIKINA GUZTIRA 19.12.31N	3	-	75	1.189
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak	(3)	-	(75)	(604)
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA 19.12.31N	-	-	-	585



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BALANTZEA 2019KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	KULTUR ETXEA	MUSIKA ESKOLA	GETXO KIROLAK	EGOITZA
AKTIBO EZ ARRUNTA	761	1.159	23.575	8.243
lbilgetu ukiezina.....	1	-	-	-
lbilgetu materiala.....	760	1.159	23.575	8.243
AKTIBO ARRUNTA	1.764	366	1.477	1.202
Zordunak eta kobratz bestel. knt e/motz.....	150	32	536	403
Finantza inbertsioak e/motz.	2	4	1	3
Eskud. eta bst. akt. lik. baliok.....	1.612	330	940	796
AKTIBOA	2.525	1.525	25.052	9.445
ONDARE GARBIA	763	1.163	23.576	8.831
Ondarea	124	831	11.780	7.385
Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	664	390	11.577	1.903
Ekitaldiko emaitza.....	(52)	(58)	219	(457)
Jasotako dirulag., aplikatzeke.....	27	-	-	
PASIBO ARRUNTA	1.762	362	1.476	614
Zorrak epe motz.	83	15	418	23
Hartzek. eta e/motz. ordaint. knt.	1.679	347	1.058	591
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2.525	1.525	25.052	9.445

2019KO EKITALDIKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

Euroak milakotan

	KULTUR ETXEA	MUSIKA ESKOLA	GETXO KIROLAK	EGOITZA
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak.....	-	-	3.373	-
Jasotako transf. eta dirulaguntzak.....	6.500	2.107	6.669	2.333
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa	525	525	-	2.841
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	17	5	9	1
Langileen gastuak	(3.351)	(2.262)	(2.004)	(4.043)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	(562)	(40)	(1.514)	-
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	(3.096)	(313)	(5.528)	(1.101)
lbilgetua amortizatzea.....	(83)	(83)	(713)	-
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	(50)	(61)	292	31
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	(49)	(58)	294	(413)
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK	(3)	-	(75)	(44)
EKITALDIKO EMAITZA	(52)	(58)	219	(457)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.3 PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO SA SOZIJETATEA

EGOERAREN BALANTZEA 2019 ETA 2018KO ABENDUAREN 31N


Euroak milakotan

	19.12.31	18.12.31		19.12.31	18.12.31
AKTIBO EZ ARRUNTA	3.910	4.688	ONDARE GARBIA	3.224	3.806
Ibilgetu materiala	3.897	4.679	Funts propioak	372	383
Geroratutako zergagatiko aktiboak	13	9	Kapital soziala	240	240
			Erreserbak	143	143
			Ekitaldiko emaitza	(11)	-
			Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	2.852	3.423
			PASIBO EZ-ARRUNTA	904	1.085
			E/luzeko zorrak	4	4
			Atzeratutako zergengatiko pasiboak	900	1.081
AKTIBO ARRUNTA	232	301	PASIBO ARRUNTA	14	98
Zordunak eta kobratz knt e/motz.	5	4	Hartzek. eta e/motz. ordaint. knt.....	14	98
Eskud. eta bst. akt. lik. balioak.....	227	297			
AKTIBOA	4.142	4.989	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	4.142	4.989

2019 ETA 2018KO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	2019	2018
Negozio zifraren zenbat. garbia	315	310
Bestelako ustiaketa-sarrerak	63	62
Langileen gastuak	(80)	(77)
Ustiapeneko beste gastu batzuk	(282)	(296)
Ibilgetua amortizatzea	(782)	(782)
Dirulaguntzak egozteak	752	752
Gehiegizko hornidurak	-	33
USTIAPENAREN EMAITZA	(14)	2
EMAITZA FINANTZARIOA	(1)	(1)
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(15)	1
Mozkinen gaineko zerga	4	(1)
EKITALDIKO EMAITZA	(11)	-





ERANSKINAK

A.1 ERAKUNDE FISKALIZATUAREN IZAERA ETA ARAUDI APLIKAGARRIA

Getxoko Udala administrazioko toki erakundea da, oinarrizko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eta apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, arautzen dutena.

Oinarrien lege horrek, II. tituluko III. kapituluan, udalerriek dituzten eskumenak eta ematen dituzten zerbitzu publikoak zehazten ditu, besteak beste, honako hauek: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, hiriko garraio kolektiboa, suteak itzaltzea, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina eta kultura- eta kirol-jarduerak.

Zerbitzuak zuzenean eman ditzakete bai toki-erakundeak berak, bai erakunde autonomoek, tokiko enpresa erakunde publikoek edo berak sortutako tokiko merkataritzako sozietate publikoek, edo zeharka, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontraturako kontratazio publikoari buruzko legedian aurreikusitako molde ugariak baliatuta. Gainera, toki-erakundeak bere eskumeneko zerbitzuak ematen ditu bera partaide den partzuergoen bidez.

2019ko martxoan, Getxoko Udaleko Udaltzako Punta Begoña Fundazioa eratzea erabaki zuen, eta, horretarako, Begoña lurmuturreko ondare historikoa eta artistikoa osatzen duten ondasun bereziak aztertzea, ikertzea, kontserbatzea, zaharberritzea eta birgaitzea hartu zituen helburutzat. Fundazioaren eraketa 2020ko martxoan jaso zen eskrituran.

Ekitaldian ezargarria den ekonomia eta kontularitzari buruzko araudi nagusia honako hau da:

- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
- 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Toki Ogasunei buruzkoa.
- 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa, Bizkaiko toki erakundeen kontularitzako esparru arautzailea onesten duena.
- 2018ko ekitaldiko Aurrekontua Egikaritzeko Udal Araua, 2019an luzatua.



A.2 AURREKONTUA ETA AURREKONTUKO ALDAKETAK

Kontu-hartzaitzak 2018ko abenduaren 18an aldeko txostena egin zuen 2019ko ekitaldirako aurrekontu-proiektuaren gainean, baina ez zion Ogasun, Kontu, Ekonomia Sustapen eta Giza Baliabideetako Informazio Batzordeari aurkeztu irizpena eman zezan, ez eta Udaltzari ere, hark onartu, zuzendu edo itzul zezan. Aurrekontu-luzapena 2019ko urtarrilaren 23an onartu zen Alkatetza-dekretu bidez.

Hona hemen, 2019ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

KAPITULUAK	Euroak milakotan					
	KREDITU GEHIK.	KREDITU OSAGARRIA	KREDITU GAIKUNTZA	TRANSFERENTZIAK		GUZTIRA
			NEG.	POS.		
1. Langileen gastuak	1	-	-	-	718	719
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa	1.289	135	230	(306)	78	1.426
4. Transf. arruntak	496	1.922	440	(56)	269	3.071
6. Inbertsio errealak	17.697	8.318	392	-	15	26.422
7. Kapitalezko transferentziak	52	1.449	-	-	-	1.501
9. Pasibo finantzarioak	-	1.778	-	(718)	-	1.060
GASTUAK GUZTIRA	19.535	13.602	1.062	(1.080)	1.080	34.199
3. Tasak eta bestelako sarrerak	-	59	-	-	59	
4. Transferentzia arruntak	79	-	611	-	-	690
6. Inbertsioen besterentzea	-	127	-	-	-	127
7. Kapitalezko transferentziak	17	-	392	-	-	409
8. Aktibo finantzarioak	19.439	13.475	-	-	-	32.914
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	19.535	13.602	1.062	-	-	34.199

Aurrekontuko aldaketa hauek % 37,3 igo dira, hasiera bateko 91,7 milioi euroren aurrekontua izatetik 125,9 milioi euroren behin betiko aurrekontua izatera aldatuz. Kredituen gehikuntzez gain, aurrekontu-aldaketen artean nabarmentzekoak dira Udaltzari onartutako kreditu gehigarriak, batez ere, Udalak eta Getxo Kirolakek inbertsioak gauzatzeko eta finantza-erakundeekin maileguak aldeztu aurretik amortizatzeko onartutakoak.

Udalaren eta bere erakunde autonomoen Aurrekontuaren likidazioa, hurrenez hurren, Alkatetzak eta erakundeetako lehendakariak onartu dituzte 2020ko otsailean. Kontu Orokorrek Kontuen Batzorde Bereziaren aldeko txostena jaso du 2020ko uztailaren 23an, eta jendaurrean agertu ostean, batere erreklamaziorik jaso gabe, Udaltzari 2020ko irailaren 29an onartu du.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.3 ZERGA, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2019ko ekitaldian zehar zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarreren kontzeptuan kitaturiko eskubideen xehapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ZENBATEKOA	
Ondasun higiezinak.....	15.733	
Trakzio Mekanikodun Ibilgailuak	4.237	
Hiri izaerako lursailen balio igoera	1.914	
Jarduera ekonomikoak	1.119	
ZERGA ZUZENAK GUZTIRA	23.003	
Eraikuntza, instalakuntza eta obrak	2.331	
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	2.331	
TASAK	12.325	
Ur hornidura eta estolderia zerbitzua.....	4.625	
Hiriko hondakin solidoen bilketa eta desegitea	4.161	
Bide publikoan ibilgailuak aparkatzea	1.319	
Hornidura enpresek lurra, lur azpia eta lur gaina okupatzeagatiko tasa.....	807	
Beste txiki batzuk	1.413	
PREZIO PUBLIKOAK	86	
ITZULKETAK	280	
BESTELAKO SARRERAK	2.003	
Trafikoko arau-hausteengatiko isunak	1.273	
Premiamendu eta berandutza interesen errekarquak	527	
Beste txiki batzuk	203	
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	14.694	
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	40.028	

A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen Udalak 2019ko ekitaldian “Transferentzia arruntak” eta “Kapitalezko transferentziak” aurrekontuko kapitulueta kitaturiko eskubideen xehapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	KAPITALEZK.
Estatuarenak	123	-
EAErenak	1.615	134
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.....	899	-
Lanbide: Enplegua sustatzea	421	-
Beste txiki batzuk.....	295	134
BFarenak	52.332	890
Udalkutxa-Itunpeko zergetan partaidetza.....	49.758	-
Gizartekutxa	845	-
Etxez etxeko laguntza	404	-
Hondartzak garbitzea	445	-
Aquariuma	244	-
Gizarte-zerbitzuen ezohiko funtsa.....	364	-
Makaletako etorbidea zaharberritzea	-	690
Beste txiki batzuk.....	272	200
Enpresen eta irabazi asmorik gabeko entitateena	56	-
GUZTIRA	54.126	1.024

Udalkutxa kontzeptuan aitortutako sarrerak, 49,8 milioi euroren zenbatekodunak, 2019ko ekitaldian jasotako konturako entreegi dagozkie. Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluak 2020ko otsailaren 18an onartutako behin betiko likidazioa 1,5 milioi handiagoa izan da. Kontseilu horrek erabaki du, osasun-larrialdiko egoera aintzat hartuta, 2021eko urtarrilera arte atzeratzea horren ordainketa.

A.5 LANGILEEN GASTUAK

Udalak eta bere erakunde autonomoek aurrekontuko kapitulu honetan 2019ko ekitaldian aitortutako obligazioen xehakapena honakoa da:

KONTZEPTUA	UDALA	Euroak milakotan			
		KULTUR ETXEA	MUSIKA ESKOLA	GETXO KIROLAK	EGOITZA
Goi kargudunen ordainsariak.....	998	-	-	-	-
Behin-behineko langileen ordainsariak	583	-	-	-	-
Goi zuzendaritzako ordainsariak.....	-	79	-	-	73
Karrerako funtz. eta bitarteko funtz. ordainsariak	17.312	-	-	-	-
Lan kontratupeko ordainsariak	563	2.506	1.651	1.501	3.037
Gizarte Segurantzza	4.980	663	509	388	823
Elkarkidetza	248	30	41	34	46
Gizarte zerbitzuak.....	207	37	23	14	16
Erretiro aurreratuengatik sariak.....	106	-	-	-	-
Bizi-aseguruak eta istripuak.....	133	23	24	14	32
Beste gizarte-gastu batzuk	155	5	8	42	13
GUZTIRA	25.285	3.343	2.256	1.993	4.040

Udaleko eta bere erakunde autonomoetako langile publikoei ordaindutako ordainsariek % 2,25eko igoera izan dute 2019ko ekitaldiko lehen seihilekoan, eta % 2,5ekoa bigarren seihilekoan, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta, Sektore Publikoaren eremuan ordainsarien arloko premia neurriak onartzen dituen abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Gainera, 2019ko abenduaren 23an, Udaleko Udaltzako onartu zuen destino-osagarrien eta berariazko osagarrien balio berriak esleitzea, udal-lanpostuen zerrendako lanpostuak baloratzeko prozesu baten ondorioz, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Ordainsarien arteko aldeek eta gizarte segurantzek milioi 1 euroren aurrekontuko gastua eragin dute 2020ko ekitaldian eta gastu hori ondarean 2019ko abenduaren 31n erregistratu da.

Udalak, 2019ko ekitaldian, 106.418 euro ordaindu dizkie 4 langileri erretiro aurreratuagatik sari gisa, udal langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioari jarraikiz. Auzitegi Gorenak ordainsarien izaerari buruz emandako hainbat erabakiren ondorioz, eta Udalean pizgarri horiek arrazoitzen eta justifikatzen dituen giza baliabideak antolatzeke planik ez dagoenez, 2019ko irailetik aurrera erretiro aurreratua hartu duten 3 funtzionariori ez zaie aitortu sariak jasotzeko eskubidea.

Plantilla eta LZ

2019ko abenduaren 31n Udalaren eta bere erakunde autonomoen plantillan eta lanpostu zerrendan barne hartutako lanpostuen kopurua honakoa da:

KONTZEPTUA	Kopurua	
	PLANTILLA	LZ
Goi kargudunak	17	-
Behin-behineko langileak.....	15	16
Karrerako funtzionarioak	302	468
Bitarteko funtzionarioak	126	-
Lan kontratu mugagabeko ez finkoak.....	4	-
Aldi baterako lan kontr. langil.....	17	-
UDALA GUZTIRA	481	484
Goi zuzendaritza	1	1
Lan kontratuko langile finkoak	26	57
Lan kontratu mugagabeko ez finkoak.....	6	-
Aldi baterako lan kontr. langil.....	36	-
KULTUR ETXEA GUZTIRA	69	58
Lan kontratuko langile finkoak	30	39
Aldi baterako lan kontr. langil.....	11	-
MUSIKA ESKOLA GUZTIRA	41	39
Goi zuzendaritza	-	1
Lan kontratuko langile finkoak	34	44
Aldi baterako lan kontr. langil.....	8	-
GETXO KIROLAK GUZTIRA	42	45
Goi zuzendaritza	1	1
Lan kontratuko langile finkoak	18	68
Aldi baterako lan kontr. langil.....	76	-
ZAHARREN EGOITZA GUZTIRA	95	69
GUZTIRA	728	695

EPE

Hona hemen 2018 eta 2019ko ekitaldietan Udalak eta erakunde autonomoek onartutako EPEetatik eratorritako hautaketa-prozesuak, 2019ko abenduaren 31 baino lehenago deitu eta ebatzi direnak:

KATEGORIA	PLAZA KOPURUA	DEIALDIA	ESLEIP.
Udala: udaltzaingoko agenteak	21	api-19	aza-19
Musika eskola: musikako irakasleak.....	5	mai-19	abe-19
Zaharren egoitza: giza-baliabideetako maila ertaineko teknikaria.....	1	ira-19	ots-20
GUZTIRA	27		

Gainera, 2019ko abenduaren 31n onartzeke daude Udalean eta Getxo Kirolak erakundean, hurrenez hurren, 29 eta 3 lanposturen deialdiak, aurrez aipatutako EPEetakoak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.6 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Udalak aurrekontuko kapitulu honetan 2019ko ekitaldian aitortutako obligazioen xehakapena honakoa da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan ZENBATEKOA
Errentamenduak	250
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza.....	3.325
Herriko kaleen mantentze-lanak	939
Getxo Antzokia: irekierako garbiketa bereziak eta erabateko mantentze-lana	551
Beste txiki batzuk.....	1.835
Bulegoko materiala.....	113
Hornidurak	5.000
Ura	3.021
Energia elektrikoa	1.283
Beste txiki batzuk.....	696
Komunikazioak	477
Aseguru primak.....	259
Zergak	5
Hainbat gastu	1.153
Publizitatea eta propaganda	511
Beste txiki batzuk.....	642
Kanpoko beste enpresa batzuek egindako lanak	24.024
Hiriaren eta hondartzen garbiketa.....	6.262
Eraikinen garbiketa.....	1.666
Hondakinen bilketa eta tratamendua	4.312
Parkeen eta lorategien zaintza	2.599
Etixerako laguntza zerbitzua	1.981
Azterketak eta lan teknikoak	1.344
Araututako aparkalekuen eta ibilgailuak garabi bidez eramateko zerbitzua	1.249
Herriko argiteriaren mantentze-lana.....	680
Diru-bilketa zerbitzua.....	614
Beste txiki batzuk.....	3.317
Dietak eta bestelako kalte-ordainak	117
GUZTIRA	34.723



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.7 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Hona hemen Udalaren, Getxoko Kultur Etxearen eta Getxo Kirolak-en 2019ko abenduaren 31n “Transferentzia arruntak” eta “Kapitalezko transferentziak” kapituluetan aitortutako obligazioen xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	KAPITALEZKOAK
TRANSFERENTZIAK	15.521	1.173
BFA: Suteen aurreikuspen, itzaltze eta salbamendu-zerbitzua.....	293	-
Getxoko Kultur Etxea.....	5.563	62
Andres Isasi Musika Eskola.....	1.642	30
Getxo Kirolak.....	5.568	1.043
Jesusen Bihotzaren Udal Egoitza.....	2.244	38
Udal talde politikoak.....	146	-
Beste txikiago batzuk (50.000 mila eurotik beherakoak).....	45	-
IZENDUNAK	518	-
Bizarra Lepoan: Euskararen sustapena kulturaren, kirolean eta aisialdian.....	(*) 83	-
Hiruka kooperatiba elkarte: euskarazko aldizkaria eta atari digitala.....	65	-
Uribe Kosta urritasun psikikoen alde: familiari arnasa.....	56	-
Algortako bertsolari eskola.....	52	-
Euskal Fundoa: Kooperazio proiektua.....	51	-
Beste txikiago batzuk (50.000 mila eurotik beherakoak).....	211	-
LEHIA	2.958	-
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.....	(*) 1.394	-
